

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gu Irati Garaiar, Xabier Hernandez, Iker Irigoien, Haizea Perez eta Eki Vicente gara, eta *Roots, organic brand* enpresa sortu dugu.

Material birziklatua baliatuz, arropa, sandaliak, motxilak,... eta tankera honetako produktuak eskainiko ditugu.

Gure enpresaren helburu nagusia kaleko zein kiroltako arropa sortzea eta merkaturatzea izango da. Kaleko arropari dagokionez, sandaliak, biserak, kamisetak, jertseak... eta bestelakoak sortuko ditu. Bestalde, kiroltako arropari dagokionez, txandala, *mayak*, eta mendiko lursailtarako aproposak izan daitezkeen motxilak eta osagarriak salduko ditu.

Produktu hauek jende ekologistarentzat eta natura zaintzeko saiakera bat egiten dutenentzat zuzenduta daude. Gauzatzeko aurrez erabilitako materialaz baliatuko gara.

Gure enpresak kortxo birziklatuaz eta tela birziklatuaz eginiko sandaliak sortuko ditu. Sandalia hauek izango duten berezitasuna sandalien zintak aldatzeko aukera egongo dela da. Guk salduko ditugun oinetakoak erosiz gero nahikoa da plataforma bat bakarra erostea. Plataforma honi zinta aldatuz gero guztiz desberdinak diren sandaliak lortuko baititugu. Ondorioz, diru kantitate handiak aurreztuko lituzke berezorak eta erosotasuna irabaziko luke.

Kaleko arropari dagokionez, jendeak etxean dituen sobera organikoekin arropa berriak sortuko dugu. Honi esker diseinu berriak egiteko aukera izango dugu eta dena birziklatua izango da. Kiroleko arropa ere material berdinez egingo dugu.

Motxilak izango dira gure markaren produktu nagusia. Bai kalerako eta bai mendirako egokituak izango dira. Motxila hauek ingurune naturaletan jasotako hondakin plastikoekin egingo ditugu. Prozesuari dagokionean, lehenengo materiala desinfektatuko dugu, eta jarraian, materiala txikitu eta prozesatu egingo dugu, behar ditugun materialak sortzeko (kremailerak, telak...). Motxila hauekin natura garbitzeaz gain, lurrean dagoen plastiko eta zaborrari erabilera eraginkor bat ematea lortuko dugu.

Produktuen prezioari dagokionez, produktu bakoitzak salneurri jakin bat izango du, eta haien balioa ondorengo ezaugarriek baldintzatuko dute: produktuaren sorkuntzan igarotako denbora, erabilitako materiala eta makinak. Prezioak webgunean eskuragarri izango ditugu. Salneurri hau konpetitiboa izango da merkatuan, baina ez merkeena. Produktu ekologikoak saltzean bezeroek produktu ekologikoaren gainprezinoa ordaintzeko prest daudela ondorioztatzen dugulako.

Produktu guzti hauek saldu ahal izateko web orri bat sortzea erabaki dugu. Bertan produktu ezberdinen eskaintza egongo da. Katetoria ezberdinetan antolatuta egongo da web orri hau. Horrez gain, sare sozialak ere irekiko ditugu; gure produktua promozionatzeko. Bertan argazkiak eta nobedadeak ikusgai izango ditugu. Gainera, bertatik dendara sartuz gero %10eko beherapena aplikatuko da.